



ELKARGOKIDEEN OHIKO ASANBLADA OROKORRA

2017/02/20



ELKARGOKIDEEN OHIKO ASANBLADA OROKORRA
2017/02/20

GAI-ZERREDA

- 1) Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena.
- 2) Urteko jardueren Txostena 2016
- 3) Lan-Plana 2017
- 4) Balantze ekonomikoa 2016 eta Aurrekontua 2017
- 5) Gobernu Batzordeko kide aldaketa
- 6) Erregu eta galderak
- 6) Ohorezko Elkargokideen izendapena



ASANBLADA OROKORRAREN AKTA

GOBERNU BATZORDEA

BERTARATUAK:

Presidente: Coro Amunarriz
Presidenteordea: Rosa Ugalde
Diruzaina: Rosario Alberdi
Idazkaria: Miren Martínez
Bokala: Goretti Bikondo
Bokala: Natalia Pérez
Bokala: Patricia Sánchez

**EZIN-ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:**

Bokala: Pili López

Donostian, **2016ko otsailaren 29an**, Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko egoitzan, 17:30tan lehenengo deialdian eta 18:00tan bigarren deialdian, aipatzen diren pertsonen bertaratzearekin, Asanblada Orokorrari hasiera ematen zaio ondorengo Gai-Zerrendarekin:

- 1) Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena
- 2) Urteko jardueren txostena 2015
- 3) Lan-Plana 2016
- 4) Balantze ekonomikoa 2015 eta Aurrekontua 2016
- 5) Erreguak eta galderak
- 6) Ohorezko elkargokideen izendapena

ELKARGOKIDEAK:

BERTARATUAK:

Virginia Peña
Mari Irazusta
Miren Merino
Santi Zaldua
Luisa Agirretxe
Pili Abad
Carmen Valois
Ane Miren de la Fuente
Bakarne Etxeberria
Eva Azkarate
Noelia Monreal
Ainara Sanz
Ana Bereziartua
Belen Larrion
Pablo García
Alvaro Gallo
Ana Lozano
Evelia Cantera
María Serrano

**EZIN-ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:**

Iker García
Maialen San Sebastian
Itsaso Arzelus
Cristina López
Loredi Salegi
Myriam Iparragirre
Elena Ferrero
Cinta Guinot



1.- AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA

Coro Amunarrizek eskerrak ematen dizkie bertaratu diren guztiei eta bilkuran landuko diren gaiak aurreratzen ditu.

Bertan dauden Gobernu Batzordeko beste kideak aurkezten ditu eta Batzordeko bokala den Pili Lópezen ezin etorria aditzera ematen du. Elkargoko langileari dagokionez, Leire Irastorza dagoela Idazkaritzako arduradun bezela, Virginia Peña ordezkatzeko ari den bitartean. Elkargoko garbitasuna egiten duen pertsonari kontratu mugagabea egin zaiola eta beraz, kontratatutako pertsonalaren parte izatera pastasen da.

Alegaziorik ez dagoenez, aurreko urteko akta onartzen da eta 2015. urtean egindako jarduerak laburtzen dira eta 2016. urtean egingo denaren berri ematen da.

2.- JARDUEREN TXOSTENA 2015

2015. urtearen zehar egin dena laburbiltzen du Coro Amunarrizek (jarduera guztiak txostenean zehaztuta daude, bertaratu guztiek ale bat dute).

Elkargokidetzaren berri ematen hasten da: altak, bajak, jubilatutako kopurua....eta atalak xehatzen ditu, Gobernu Batzordeko ohiko bilkurak, hauetan Elkargora iristen diren gaiak aztertzen dira, baita batzorde desberdinetako bilkurak (Hausnarketa, Kudeaketa, Komunikazioa), hauek 2014. urtean sortu ziren eta Gobernu Batzordeko kide berberetzat osatuta baldin badaude ere, hauen zeregina desberdina da.

Elkargoak eskaintzen dituzten zerbitzuak gogorarazten ditu, arlo pribatu zein publikoko lan-eskaintzen hedapena, oposizioetan epaimahaietan partaidetza, liburutegia, teknologia berriak..... Kontseilu Orokorrean partaidetza nabarmentzen du, elkargoarteko bilkurak, Unibertsitate eta beste Elkargo Profesionalekin elkarlankidetzak.

Etengabeko prestakuntzaren alde apostua egiten jarraitzen duela Elkargoak dio, antolatzen diren kurtso gehienak egiten direla, bat edo beste bertan behera uzten badira ere, gastuei aurre egiteko adina jende ez dagoen kasutan.

Korok Gizarte Zerbitzuen Expo Europako Biltzarrean parte hartu zuela kontatzen du, Gizarte Langileen Nazioarteko Federazioak antolatuta. "*Herstura eta gizarte lana, giza dimentsioa*" izeneko tailerra aurkeztu zuen, bertan Europan ezarri diren herostura-politikak garapen berri bat lortzera laguntzen ote duten aztertzen zen, Gizarta Lana eta etika profesionalaren begiradatik.



3.- LAN-PLANA 2016

Aurreko urtetako ildo berberatik jarraitu behar dela dio Patriciak, gizartean egiten dugun lana ikusarazteko lanbidea aldarrikatuz. Horretarako, komunikabidetan gure partaidetza sustatzen jarraituko da eta batzorde edo lan-talde berriak sortzeko elkargokideen parte-hartzea eskatzen jarraituko da, arlo desberdinetan adituak diren profesionalen ekarpen aberasgarriak edukitzeko.

Kudeaketa eta Komunikazio arloak indartuko dira, Elkargoaren irudi korporatiboaren alde lan egiteko, profesionalatasuna, praktika ona, Administrazioarekiko harremanak...

Prestakuntzaren alde apostua egiten jarraituko da eta azken finean, epe labur eta luzean hobekuntzak sartzen joango dira lanbidearen onurarako izango direnak.

4.- BALANTZE EKONOMIKOA 2015 ETA AURREKONTUA 2016

Mariarrok, Elkargoko diruzaina, sail ekonomikoak zehazten ditu (bertaratu diren guztien balantze eta aurrekontuaren kopia dute).

Aholkularitza enpresa baten zerbitzuak kontratatu direla dio, kontabilitatea eraman dezan, zergarik gabeko kontuak direla eta beraz, gastuei aurre egiteko arazo handirik ez dagoela. 2016. urterako aurrekontua, elkargokide bati itzuliko zaizkion 6.000€ nabarmentzen dira. Erabakia, iazko azaroan egindako Ezohiko Asanbladan berretsi zen baina diru-itzultzea 2016. urtean egingo da.

Egoitzako hipotekari dagokionez, amortizatzen joatea da ideia baina oraindik ez da zehaztu zein diru kopuru erabiliko den horretarako.

Pertsonaleko gastuak igo egin dira pixka bat, garbitasuna egiten duen pertsona ere Elkargoko langileriaren parte delako orain.

Aurreko urtetako sail batzuk aldatu egin dira edo berri batzuk sortu dira, adibidez, omenaldian, heriotza kasuetan erabiliko den diru-kopurua..... Hainbat ekitaldien gastuei aurre egiteko ere kopurua handituko da, adibidez, Gizarte Langintzako Munduko Eguna edo antzekoak...Gobernu Batzordeko edo kolaboratzaileen joan-etorriak eta dietak kubritzeko ere gastua areagotuko da. Mariarroken ustetan, gastu hauek ez dute aurrekontua ia aldatzen.

5.- OHOREZKO ELKARGOKIDEEN IZENDAPENA

Ohorezko elkargokideak izendatzen dira:

Ana Lozano
María Serrano
Evelia Cantera

Eta gaia gehiago ez dagoenez, Asanblada amaitutzat jotzen da.



JARDUEREN TXOSTENA

2016



AURKIBIDEA

O. AURKEZPENA	3
1. ELKARGOA, NORTZUK GARA?	4
1.1. ORGANIGRAMA	4
1.2. OHIKO ASANBLADA OROKORRA	4
1.3. GOBERNU BATZORDEKO BILKURAK	5
1.4. ELKARGOKIDETZAREN EGUNGO EGOERA	5
1.5. LAN-TALDEAK	6
2. ELKARGOKIDEENTZAKO ZERBITZUAK	8
2.1. INFORMAZIO ZERBITZUA ETA AHOLKULARITZA PROFESIONALA	8
2.2. OPOSAKETAK ETA EPAIMAHAIK	9
2.3. HAUTAKETA PROZESUEN JARRAIPENA	9
2.4. LAN ESKAINTZEN KUDEAKETA	10
2.5. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA	10
2.6. LIBURUTEGIKO ZERBITZUA	11
2.7. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA	11
2.8. TEKNOLOGIA BERRIAK	12
2.8.1. E-POSTA PROFESIONALA	12
2.8.2. KOMUNIKAZIOAK EMAILEZ	12
2.8.3. WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK	12
2.9. GIZARTE ZERBITZUKO ALDIZKARIA	12
3. PARTAIDETZA ETA ERAKUNDETAN ORDEZKARITZA	13
3.1. GIZARTE LANGINTZAKO KONTSEILU OROKORRA	13
3.2. ELKARGOARTEKO BILKURAK	14
3.3. EUSKO JAURLARITZA	15
3.4. UDALAK	15
3.5. UNIBERTSITATEAK ETA ELKARGO PROFESIONALAK	15
3.5.1. UNED-EKIN HITZARMENA	15
3.5.2. MECES-EKO 2. MAILARA KORRESPONDENTZIA	16
4. FORMAZIOA	17
5. GIZARTE LANA BALIOZTATUZ	18
5.1. GIZARTE LANEKO MUNDUKO EGUNA	18
5.2. ELKARGOA KOMUNIKABIDEETAN	18
5.3. ATXIKIMENDU KANPAINA	19
5.4. DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN HITZALDI INFORMATIBOA	19



O. AURKEZPENA

Aurten ere esku artean duzue Gipuzkoako Gizarte Langintza Elkargo Ofizialak aurkeztuta 2016. urtean zehar egindako ekintza Memoria.

Urte intentsoa izan da eta elkargokide eta Gobernu Batzordeko kide batzuek ondorengo bi ataletan sailkatu daitezkeen lan arloetan sakondu dugu.

1. **Kanpo mailan,** Lan taldeen bitartez elkargokideak aktibatu ditugu:

- Gizarte Zerbitzuen modelo bakar baten aldeko adituen taldea
- Gizarte langintzaren figura eskuhartze esparru ezberdinetan presente egon dadin lana, adin txikikoak, eskuhartzea familiekin.
- Foro ezberdinetan partehartzea gure lanbidea gai sozialak tratatzen diren organo eta kontseiluetan egin dadin,

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak eta Donostiko Udalak dituzten Lan Batzordeetan parte hartzen jarraitzen dute elkargokide batzuk.

2-**Barne mailan,** Gobernu Batzordeko lehengo urtean bezala kideak modu bizian bi Lan Komisioetan lan egin dute . Bata Komunikazio Komisia, hau formakuntzaren antolaketaren, publizitateaz, parte hartzeaz, komunikabideez eta Elkargoko web. orria antolatzearen ardura izan dute. Bestea berriz Kudeaketa Komisia da, Barne antolaketa lana egin duela, diruzaintzaren jarraipena, tribunalen protokoloa, plan estrategikoa eta hauteskundeak.

Badakigu oraindik asko dagoela egiteko eta ditugun indarrak kontuan harturik iritsi garen tokiraino ailegatu garela. Gai ezberdinetan parte hartzeko elkargokideen eskaerak jaso ditugu baina ezin izan gara iritsi, ezinbestekoa baitziren lehentasunak ezartzea.

Jakinarazi nahi dizuegu errealitatea bat dela, eta desioa beste bat, arrazoi honengatik 2017 eta datozen urteetan saiatuko gara, elkargokideen parte hartze, lan talde, lankidetzaz zehatzen etab. bitartez, handiagoren beharra transmititzen, . Kontziente izango zarete erantzuna behar duten gai garrantzitsu asko dagoela eta zuen lankidetzaz gabe ezinezkoa izango dela lan hau burutzea.

Besarkada handi bat

GOBERNU BATZORDEA



1. ELKARGOA- NORTZUK GARA?

1.1. ORGANIGRAMA



1.2.OHIKO ASANBLADA OROKORRA

Elkargokideen Asanblada Orokorra 2016ko otsailaren 29an ospatu zen, 27 elkargokide bertaratu ziren. 8 pertsonak ezin-etorria adierazi zuten eta 3 Ohorezko Elkargokide izendatu ziren, jubilatatu egin zirelako.

Parte-hartze urria izan arren, azken urtetan ohikoa den bezela (Gipuzkoako Elkargokideetatik %3a ere ez da iristen bertaratuen kopurua), Elkargoa jarraitzen ari den ibilbidea eta garai berrietara egokitzen ari den modua positibotzat jo zen, funtzeskoak diren arloetan Elkargoaren presentzia azpimarratu zen.

1.3.GOBERNU BATZORDEKO BILKURAK

11 aldiz bildu da Gobernu Batzordea 2016. urtearen zehar, honako datetan:

- Urtarrilak 14
- Otsailak 2
- Martxoak 2
- Apirilak 28
- Maiatzak 4
- Ekainak 1
- Uztailak 1
- Irailak 12
- Urriak 21
- Azaroak 24
- Abenduak 30

Duela bi urte sortu ziren taldeekin lanean jarraitu du, Elkargoari dagozkion gaietan sakondu ahal izateko, ohiko bileretan ezin direnak aztertu beste hainbeste erabaki hartu behar direlako egun hauetan. Horrela ba, Hausnarketa-Batzordea sortu zen, 2016. urten hiru aldiz bildu dena, Kudeaketa Batzordea zazpi aldiz bildu dena eta Komunikazio Batzordea, lau aldiz bildu dena 2016. urtean. Batzorde guzti hauek Gobernu Batzordeko kide berberak osatzen dituzte.

1.4. ELKARGOKIDETZAREN EGOERA

2016ko abenduak 31an elkargokide kopurua: 661

Bajak 2016. urtean: 24

Altak 2016. urtean: 41

65 pertsona jubilatuta daude elkargokideen artean.

1.5. LAN-TALDEAK

TOKIKO ADMINISTRAZIOKO ARRAZIONALIZAZIO LEGEAREN INGURUKO LAN-TALDEA

2016ko martxoan, Auzitegi Konstituzionalak Gizarte Zerbitzuetan Tokiko Erreformatzen aplikazioa bertan behera uztea erabaki zuen, 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Tokiko Administrazioako Arrazionalizazio Legea.

Araudia atera zen momentu berberatik, Gizarte Laneko lanbidea ordezkatzeko duten sektore guztiek legearen aurka jarri ziren, Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoko oinarritzeko egituraren desegitea suposatzen zuelako eta biztanleria alde batera uzten zuelako, edozein giza eskubidetik urrun, karitatea eta ongintzazko arretaren menpe.

Legea onartu zenetik, Elkargoak Administrazio Publikoko hainbat erakundeetara gutunak igorri zituen baita Eusko Legebiltzarreko partidu politiko guztiei ere. Bere fruitua izan zuen eta Gobernu Batzordeko bi kidek Eusko Legebiltzarrean agerraldia egin zuten.

DIRU SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA (DSBL) – LAN TALDEA

2016.ko otsailean, DSBLaren inguruan Gizarte Politikako Departamentuak 2015. urtean Udal guztiei igorri zien ebaluazio-galdeketa onduz Elkargoko Gobernu Batzordeak egin zuen balorazioaren ostean, eta Elkargoaren onespenerik gabe komunikabideetara iritsi zena, Maite Peña Diputatua Coro Amunarriz eta Miren Martínezekin bildu zen. Aurretik, Batzar Nagusietan agertzeko eskatu zieten Maite Peñari. Bilkuran, Diputatuak diru-laguntza birmoldatzeko ikerketa egingo zutela adierazi zuen.

Elkargotik, gaiaren inguruan ekarpenak egiteko deialdia luzatu zen eta apirilaren 11an, Coro eta Miren berriro bildu ziren Maiterekin, honek Gizarte Langileen iritzia jasotzeko eta Elkargotik egindako proposamenak entzuteko.

Hurrengo egunean iritsi zen ustekabea, DSBLan egingo zituzten aldaketen berri komunikatu ofiziala argitaratu zenean, diru-laguntza eskuratzeko baldintzak gogortuko zirela eta 2018. urtean behin betiko desagertuko zela adierazi zutenean.

GIZARTE LANGILE IRUDIA GUTXITZEN ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALEAN ETA GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ZERBITZUAN

2016. urtearen zehar, Elkargoa adi egon da familia, gazte eta adingabekoekin esku-hartze psikosozialeko Zerbitzuak eskaintzeko Administrazioak argitaratu dituen baldintza teknikoak aztertzen. Horrela, Andoaingo Udalak apirilean Zerbitzu hau eskaintzeko kontratu esleipenarako Lizitazio-iragarkia argitaratu zuela jakin genuen. Baldintza administratibo eta teknikoak aztertu ondoren, lan-taldeari dagokion puntuan, psikologo psikoterapeuta, bi hezitzaile eta genero-indarkeria jasaten duten emakumeen pisuetan lan egiteko hezitzailea eskatzen zutela ikusi genuen. Berriz ere, lan-taldean sartzeko eskatutako titulazioa mugatuta zegoela eta Gizarte Langintzako titulazioa kanpoan gelditzen zela ohartu ginen. Baldintza hauek, Gizarte Langileen eskubideak urratzen dituzte, eskatutako funtzioak betetzeko espezifikoki prestatuta egonik.

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (KEAO) aurrean errekurtsua aurkezteko aukera aztertu zen abokatuarekin eta ahalezkoa zela ikusi ondoren, Andoaingo Udalarekin harremanetan jarri ginen testua aldatzeko eskatuz, bestela Elkargotik errekurtsua jarriko zela adieraziz.

Gizarte Zerbitzuen arduradunarekin zenbait elkarrizketa eduki ondoren, beharrezko aldaketak egin ziren eta berriz ere baldintzak argitaratu zituzten, bertan Gizarte Langintzaren Titulazioa sartu zuten.

Beraz, Elkargoak errekurtsorik ez zuen sartu.

Deustoko ordezkariekin ere hainbat bilera egin dira, ekintza bateratuak antolatzeko honelako kasuetan. Irailaren amaieran, Foru Aldundiko Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendari Nagusia den Belen Larrioni hainbat agiri eta idatziz osatutako txostena helarazi zitzaion.

Bilkura formala egiteko deialdia luzatu dugu eta berehala izango delakoan gaude. Eusko Jaurlaritzari ere eskatuko zaio bilkura egitea, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen 131/2008 Dekretuaren aldaketa eskatuko zaio.

Gainera, urtearen amaiera Gipuzkoako herri guztietako Gizarte Zerbitzuen arduradunei gutun bat igorri zitzaion, familia eta adingabekoekin esku-hartze psikosozialetako programen baldintzak argitaratzeko orduan, programa hauek arautzen dituzten arauak kontutan edukitzeko eta Gizarte Langintzan titulazioa daukaten profesionalak ez baztertzeko eskatzen.

2. ELKARKOKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

2.1 INFORMAZIO ZERBITZUA ETA AHOLKULARITZA PROFESIONALA

Elkargoak **Informazio zerbitzua** eskaintzen du elkargokide guztientzako. Hilero, zirkular berri emailea igortzen die eta bertan, barne kontuak, lanekoak, prestakuntza, legeak, bibliografia eta informazio orokorrak agertzen dira.

Gainera, **aholkularitza profesionala** ere eskaintzen da. Elkargokideen eskaerak jasotzen dira, telefonoz, emailaz edota era presentzialean.

Zerbitzua horrela banatzen da:

- ❖ Kontsulta teknikoak: Idazkari Teknikoak ematen die irteera, lan dokumental osagarria suposatzen du. Honako gaiekin lotutako kontsultak jaso dira: erasoak lanean, epai mahaiak, funtzioak lanen, peritaje soziala, bitartekaritza, prestakuntza eta datuen babesei buruzkoak.
- ❖ Kontsulta administratiboak: Idazkariak edo administrariak konpondu ditu. Emailez edo telefonoz jasotzen dira.
- ❖ Kontsulta juridikoak: **Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorreko Aholkularitza Juridikoaren** babesa du Elkargoak, izaera juridikoa duten kontsultei irteera emateko. Aurten horrelako kontsulta bat izan dugu, Udaletxe batek lan postu bat betetzeko ezarritako oinarriei buruzkoa.

2.2 OPOSAKETAK ETA EPIMAHAIK

Administrazio barnean ematen diren hautaketa prozesuetako epimahaietan Elkargokideen partaidetza erraztea da Elkargoak eskaintzen duen zerbitzuetako bat, 18/1997 legeak, Lanbide Tituludunetan aritzeari eta Profesional Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa, dionarekin bat eginez. Erantzukizun handiko funtzioa da hau, lan asko suposatzen duena, hala ere jarraitzea beharrezkoa dela deritzogu, garrantzi handia delako Elkargoa hautaketa prozesuetan presente egotea, eskaintzen duen segurtasunarengatik.

2016. urtean, Oiartzungo Udalak etxe-etxe laguntzaile bi postu hornitzeko deialdia egin zuen, lehiaketa-oposizio bidez. 2015. urtearen amaieran, Elkargoko ordezkari bat eskatu zuten epimahai kalifikatzailean parte-hartzeko.

2.3 HAUTAKETA PROZESUEN JARRAIPENA

Elkargoak, Idazkaritzatik, Administrazio Publikoko hautaketa prozesuen jarraipena egiten du.

- **Alokabide.-**

2014. urtearen amaieran hasi zen prozesua, entitateak eskaini zuen lan-poltsako oinarriekin Elkargoek desadostasuna adierazi genuenean. Hilabetetan zehar adostasun batera iristeko ekintza anitz egin ondoren, Bizkaiako Elkargoak Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea erabaki zuen (prozesuko xehetasunak 2015. urteko txostenean adierazten dira).

2016. urtean, Alokabideko lan-poltsan izena ematen zuten pertsona guztiek epaitegitik zitazioa jaso zuten (ekainak 15 eta uztailak 8rako). Oinarrizko eskubide bezela ulertzen zen, epailearen erabakiaren ondorioz kaltetuak izan zitezkeen pertsona guztiak prozesuaren berri eduki zezaten. Hala ere, bertaratzea ez zela derrigorrezkoa adierazi zitzaizen pertsona hauei, Bizkaiko Elkargoak ordezkatzeko gintuelako.

Gaur egun, prozesua amaitzeko dago.

2.4 LAN-ESKAITZEN KUDEAKETA

Elkargoak jasotzen dituen lan eskaitzak kudeatzen ditu, eskaintza hauen berri bi modutan izaten du: prentsan edota Aldizkari Ofizialetan **argitaratu** direlako edota lan postua eskaintzen duen **entitatea zuzenean Elkargoarekin harremanetan** jarri delako. Lanbiden argitaratzen diren lan-eskaintzen berri ere ematen dugu.

2016. urtean, arlo pribatuko 20 bat eskaintzen hedapena egin du Elkargoak.

Hedapena lan-eskaintzaren berri eduki bezain leister egiten da.

Adminsitrazioari dagokionean, sei lan-eskaintza publikoen berri eman da.

Donostiako Udalak eskainitako 17 Gizarte Langile plazak nabarmentzen dira, oinarri espezifikoak oraindik argitaratu gabe daude.

2.5 ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialeko Estatutuak onartzen duen 2000. urteko irailaren 4eko Aginduak dionez, 19. artikuluan: *Elkargokideen betebeharrak, n puntua) "lanbide profesionalaren jardutearen ondorioz egon daitezkeen ondorioengatik, **erantzukizun zibileko aseguruaren** bidez babestu", 18/1997 Legeak 12. artikularekin dionarekin bat eginez.*

Elkargokideek honako baldintza hau bete dezaten errazteko, Elkargoak arrazoizko kostua duen aseguru eskaintzen du, Kontseilu Orokorrak nazio mailan sinatutako akordio bati esker, Broker's 88 izenekoa. Egun 25 elkargokide daude alta egoeran.



2.6 LIBURUTEGIA

Mailegu zerbitzua eskaintzen da elkargokideei, hamabostaldian lau liburu eskuratu daitezke.

Asko izan Elkargoan urtearen zehar jasotako aldizkari eta agiriak:

- ✓ Servicios Sociales y Política Social (Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra)
- ✓ Trabajo Social y Salud (GL eta Osasun Elkarte)
- ✓ Documentación Social (Caritas)
- ✓ Revista de TS (Catalunyako Elkargo)
- ✓ Niños de Hoy (ASEFA Elkarte)
- ✓ TS Hoy (Madrileko Elkargo)
- ✓ Proyecto Hombre
- ✓ Gitanos
- ✓ Perfiles (ONCE)
- ✓ Profesiones (Batasun Profesionala)
- ✓ Hirukide (Federación de familias numerosas de Euskadiko kide ugari
Familien Elkarteen Federazioa)
- ✓ KOOP (Erkide)
- ✓ Agathos
- ✓ Haurdanik (Avaim)
- ✓ TS Difusión (Andaluziako Elkargo)
- ✓ Cuadernos de TS (Madrileko Unibertsitatea)
- ✓ Entorno Social
- ✓ Gizarteratuz, Eguneratuz, Gizarte (SIIS)
- ✓ Revista de Inmigración

2.7 ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Elkargoak kolektiboaren beharrak jasotzen ditu eta gai interesgarriei buruzko mintegi eta hitzaldiz osatutako programazioa zehatza sustatzen du.

(Txostenaren 4. atala kontsultatu)

2.8 TEKNOLOGIA BERRIAK

2.8.1 E-POSTA PROFESIONALA

Kontseilu Orokorrak, Google entitatearekin daukan akordioari esker, e-posta profesionala edukitzeko aukera eskaintzen die elkargokideei, @cgtrabajosocial.com amaierarekin.

20 elkargokidek eskatu dute e-posta honen aktibazioa.

2.8.2 KOMUNIKAZIOA EMAILEZ

Elkargo eta elkargoarteko kideen artean komunikatzeko gehien erabiltzen den erreminta. Oraindik ere badira hileko zirkularra paperean jasotzen dutenak baino gero eta gutxiago dira.

2.8.3 WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK

www.trabajosocialgipuzkoa.org – [www.facebook/trabajosocial.gipuzkoa](https://www.facebook.com/trabajosocial.gipuzkoa)

Internet da elkargokideekin komunikatzeko Elkargoak erabiltzen duen biderik nagusiena. Gero eta eduki gehiago zintzilikatzen dira web orrian eta facebook-en, elkargokideek berehala informazio eguneratua eduki dezaten. Kolektibo bezala ezagutarazteko ere balio digu, kolegiatuak ez diren profesionalei hurbiltzeko ere bai.

Belaunaldi berrietako profesionalek online kolegiazioa egiten dute, aurtengo nobedadea delarik honako hau, Lehiatila Bakarraren abiaraztearekin bat eginez.

2.9 GIZARTE ZERBITZUEN ALDIZKARIA

Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorrak argitaratzen duen aldizkaria da hau, gai monografikoekin. Nahi duenak jasotzen du bere etxean, hiru aldizkari urteko, gai zehatz batzuei buruz dihardute.

Jasotzen duten elkargokideek, 9,90€ ordaintzen dituzte urteko.

2016. urteko izenburuak hauek izan dira:

110 : "Sistema de ingresos mínimos y Trabajo Social"

111 : "Migraciones forzosas. Realidad, respuestas e intervención"

112 : "Trabajo Social en Barrios"



3. PARTAIDETZA ETA ERAKUNDETAN ORDEZKARITZA

3.1 GIZARTE LANGINTZAREN KONTSEILU OROKORRA

Estatuaren zehar banatuta dauden 36 Elkargoen ordezkaria da Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra. 2016. urtean, bi Ohiko Asanblada Orokorra ospatu dira, martxoak 12an Santiago de Compostelan eta abenduak 17an Madrilén. Bietara, Elkargoko Presidentea den Coro Amunarriz bertaratu zen.

Asanblada hauetan parte-hartzeak garrantzi handia du gure lanbiderako, gai desberdinen inguruan ekintza-emitza estrategia bateratuak diseinatzen direlako bertan.

2016. urtearen erdialdean, Nazioarteko Gizarte Langileen Federazioko Presidentea

izendatu zuten Ana Lima, Kontseilu Orokorreko Presidentea ere badena. Positibotzat jo zen albiste hau, nazioarteko presentzia indartzeko helburuarekin bat eginez. Gizarte Laneko gaiak European mahaigaineratzeko estrategiak abiarazten hasi gara.

Nazio mailan, osasun arloan eta soziosanitarioan Gizarte Langileek duten garrantzia ikusarazteko lan egin da. 2014. urtean mahai-profesional bat sortu zen gaia abordatzeko. Adituen kolaborazioa eskatuko da berriro, kontsultak, trukeak eta proposamenak egiteko gaiaren inguruan.

Gizarte Zerbitzuetako eredu bateratu baten inguruan lan egiteko taldea sortu zen 2016. urtean. Egutegia eta lan-metodologia bat ezarri da, lau bloketan oinarrituta dagoena. Elkargo bakoitzeko lan-taldeek bloke bakoitzaren lanketa egingo dute. Lehenengo bilkura Madrilen egin zuten joan den urriaren 8an. 2017.urtearen amaieran, Gizarte Zerbitzuen Ereduaren azken txosten bat aurkeztea espero da.

3.2 ELKARGOARTEKO BILKURAK

Bilera bat besterik ez da egin 2016. urtean, Bilbon, joan den maiatzaren 6ean.

Gipuzkoatik Goretti Bikondo eta Rosario Alberdi joan ziren, biak Gobernu

Batzordekideak.

Landutako gaiak:

- Elkargo eta Elkargoarteko egitura: Esperientzia eta kudeaketa moduen elkartrukea, Elkargoa eta Elkargoarteko egituren hobekuntzarako (Araudi organikoa eta funtzionamendua; ekitaldi bateratuak, komunikabideak..). Hiru Elkargoak batera kudeatu ditzazketeen gaien azterketa.
- Jarrera bateratuak eta lan partekatua: kontsultarako organoetan Elkargoaren ordezkariak (ordezkariak, deialdiak, maiztasuna, gaien lanketak...) eta ordezkarien eta Elkargoen arteko komunikazioa. Ordezkarien ekarpenen kudeaketa (organo hauen eta gure ordezkariaren ibilbide-orria).
- Lurralde historiko bakoitzean dauden eta gai zehatzetan adituak diren profesionalen erregistroa, formazioa antolatzerakoan kontutan edukitzeko.

3.3 EUSKO JAURLARITZA

BILKURAK	BATZORDEAK	ORDEZKARIA
2016/05/23	FAMILIAKO EUSKAL KONTSEILUA	JUAN ANTONIO VIÑA (BIZKAIA)
2016/06/17	GIZARTERATZEKOK EUSKAL KONTSEILUA	ERNESTO NOTARIO (BIZKAIA)
2016/06/23 2016/11/17	HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTEZKO BATZORDE IRAUNKORRA	ALVARO GALLO (GIPUZKOA)
2016/07/06 2016/10/18	GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA	GOTZON VILLAÑO (ARABA)

3.4 UDALA

BILKURAK	BATZORDEAK	ORDEZKARIA
2016/04/15 2016/05/03 2016/06/24 2016/12/13	GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILUA – DONOSTIAKO UDALA	ROSA UGALDE

3.5 UNIBERTSITEAK ETA ELKARGO PROFESIONALAK

3.5.1 UNED-EKIN HITZARMENA

2016ko ekainean, UNED-BERGARArekin hitzarmena sinatu zuen Elkargoak, bi erakundeak dituzten helburu orokorrak lortzeko asmoarekin, proiektuen sustapenean, prestakuntza jardueren garapenean eta ezagueren hedapenean zehazten dena Gizarte Laneko profesionalei etengabeko prestakuntza eskaintzea da bi erakundeen helburua. Galdeketa bat landu zen, elkargokideei igorri zitzaiena beraien interesen berri UNED eduki zezan. Hitzarmenari esker, UNEDek eskaintzen dituen kurtso guztietan, elkargokideen %20eko deskontua edukiko dute.

3.5.2 MECES 2. MAILARA KORRESPONDENTZIA

2016ko urtarrilean, Ministroen Kontseiluak Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan oraindik egiteke zauden azken 21 titulu unibertsitarioen korrespondentzia onetsi zuen, hauen artean Gizarte Langintzan Diplomatura. Horrela ba, Diplomaturak MECESko 2. mailako (Gradua) korrespondentzia lortu du.

Korrespondentzia honek ez du esan nahi Diplomatura dutenek Graduako titulu berria eskuratuko dutenik, ezta "graduatuak" bezala izendatuko direnik, ez da ez homologazioa ez parekatze zuzena. Bolonia aurreko titulazioa edukitzen jarraituko da (Diplomatura), Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparruan Gradu Titulu "berriarekin" korrespondituko dena. Beraz, Europa mailan gauzak argiago edukitzeko balioko du, diplomatura/lizentziaturak ez direlako existitzen, Europara lan egitera joaten denak, lehen Gizarte Laneko Diplomatura zuenari gaur egun ze titulazio dagokion jakiteko.

4 . FORMAZIOA

Prestakuntza da Elkargoko apusturik handienetakoa, prestatzeko balio duen erreminta delako eta Elkargoa lanbideari, ikasleei, elkargokideei eta elkargokide ez direnei hurbiltzeko balio duelako, baita beste giza zientzien arloko hainbat profesionalei.

2016. urtean, ordu gehiagoko prestakuntza eskaini dugu. Era askotako eskaintzak izan dira, hainbat gai desberdin ukituz.

165 pertsonen parte hartu dute, hitzaldi/kurtso desberdinetan banatuta.



NOIZ	KURTSOA / HITZALDIA	HIZLARIA	PARTAIDE KOPURUA
Urtarrila	"Larrialdietan arreta psikosoziala"	Ange. L. Arricivita Gizarte Langilea	11
Martxoa	GIZARTE LANEKO MUNDUKO EGUNA	Elkargokideen bazkaria eta ikuskizuna	24
Martxoa	"Txosten sozialak"	Izaskun Ormaetxea Gizarte Langilea	21º
Apirila	"Lan-aukerak gizarte ekintzailatzatik	Jesús Peiró Gizarte Langilea	Bertan behera uzten da izen- emate eskasiarengatik
Maiatza	"Gizarte Langilea eta Justizia- Administrazioa"	Pilar Ruiz Gizarte Langilea	13
Ekaina	"Txosten sozialak"	Izaskun Ormaetxea Gizarte Langilea	15
Iraila 2016- apirila 2017	"Familia Bitartekaritza eta gatazken konponketa"	EDAE eta UDIMA	32
Urria	"Familia Bitartekaritzako zerbitzua"	Julia Ferrer Garazi Urzay	10
Urria	"Antzerki soziala" Tailerra"	Israel Hergón	Bertan behera uzten da izen- emate eskasiarengatik
Azaroa	"Kasu praktikoak"	Amaia Leunda	15
Azaroa	"Gizarteratzearen kostua"	Hitzaldi irekia	18
Abendua	Hitzaldia "Zer egiten du Gizarte Langile batek espetxean?"	Myriam Iparragirre	6

Balorazioak oso positiboak izan dira, beraz prestakuntza arloan Elkargoak hasitako ildo ona baieztatzen da. Hala ere, hiru formazio bertan behera utzi behar izan ditugu izen-emate gutxi izan direlako. Datorren urteari begira, zer nolako aukerak dauden aztertuko ditugu, elkargokideen artean formazioa sustatu ahal izateko.

5 . GIZARTE LANA BALIOZTATUZ

5.1 GIZARTE LANGINTZAREN MUNDUKO EGUNA

Martxoaren 15an ospatu genuen **“Gizarteek aurrera egiten dute herritar guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzen direnean. Gizarte Langileak gizateri bateratuaren alde”**

Kolektiboa bildu eta hausnarketarako gunea sortzea da helburua, elkarren artean ezagutzera ematea eta berezko eguna ospatzea, kolektiboa osatzen dugun Gizarte Langileok biltzeko leku bat eduki dezagun eta harreman estuagoak lantzeko aukera edukitzeko, talde nortasunaren eraikuntza babestuz.

Donostiako jatetxe batean bazkaria antolatu zen eta elkargokide guztiei gonbidatu zitzaien parte hartzera. Gizarte Langile batek clown-eko ikuskizun batekin girotu zuen ekitaldia.

5.2 ELKARGOA KOMUNIKABIDEETAN

Zenbait komunikabidetan agertu ginen 2016. urtearen zehar.

-Diario Vasco. 2016/03/03

“Uno de cada cinco beneficiarios de la RGI cobra la ayuda para complementar su sueldo”. Coro Amunarriz.

-Diario Vasco. 2016/05/15

“La reforma de la RGI,a examen”. Coro Amunarriz.

-Onda Cero. 2016/15/03

Gizarte Laneko Munduko Eguna. Alvaro Gallo-ri elkarrizketa.

5.3 ATXIKIMENDU KANPAINA

Amnistia Internacional-ek bultzatutako ..#YoAcojo kanpainari atxikitu zen Elkargoa, pertsona errefuxiatuentzak toki seguru bat erreklamatzeko.

**AMNISTÍA
INTERNACIONAL**



5.4 HITZALDI INFORMATIBOA DEUSTUKO UNIBETSITATEAN

Urtero bezela, Gobernu Batzodeko bi kidek Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko azken mailako ikasleei Elkargoa eta kolegiazioari buruzko informazioa eskaini zien.

Maiatzaren 25ean egin zen hitzaldia, Unibertsitate bertan, eta ikasle kopuru handiak parte hartu zuen bertan. Nabarmentzekoa da hitzaldia ta gero Elkargoan izan genituen kolegiazio kopuruen ugaritzea, beraz oso positiboa eta eraginkorra dela uste da elkargokide gehiago lortzeko.



PLAN OPERATIBOA

2017



AURKIBIDEA - PLAN OPERATIBOA 2017

1.	ELKARGOKIDEAK	3
2.	PRESTAKUNTZA	4
3.	KUKDEAKETA	4
4.	KANPO KOORDINAZIOA	5
5.	LANBIDEA	6

1. ELKARGOKIDEAK

Azken urteetako ildo beretik jarraituko du Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak, elkargokideengana gerturatuz eta hauen beharretara egokituz. Horretarako, honako helburuak ezarri ditugu:

- Oinarrizko zerbitzuak mantendu: prestakuntza, aholkularitza juridikoa, liburutegia, web orriaren eguneratzea, lan-poltsa, oposaketen prestakuntza, erantzukizun zibilaren aseguruia, zirkularra, kode deontologikoa, kexa eta iradokizunen bilketa, e-posta profesionala...
- Informazio eguneratua eskaintzea, buletin astekaria eta zirkularraren bitartez.
- Jarduera profesionala ekiteko beharrezkoak diren agiriak eskuratzea erraztu:
 - Liburutegiko liburu kopurua handitu.
 - Kontseilu Orokorrak argitaratzen duen "Servicios Sociales y Política Social" lauhileroko aldizkaria.
 - Elkargoko web orria.
 - Elkargokideen lan profesionala sustatu eta nabaritu.
 - Data nabarmenduetan komunikabideekin harremanetan jartzea, gure lanbiderako garrantzitsuak diren gaien inguruan: Gizarte Lanaren Nazioarteko Eguna, DSBE, TAAIL...
 - Administrazioarekin elkarlankidetza, kolektiboak garatzen duen lanean eragina duten gaiei buruzko lan-taldetan parte hartuz.
- Lan-taldetan Elkargokideek parte hartu dezaten bultzatu, baita gai espezifikoei buruz kolaborazioak ere. Helburu honekin, aldian behin, galdeketa igorriko zaie elkargokideei, bakoitzaren esperientzia eta interes-arloak jasoko dituen.

2. PRESTAKUNTZA

Formazio eguneratu bat edukitzea ezinbestekoa izanik gure lanbidearentzako, azken urtetan mahaigaineratutako planteamenduari jarraipena eman nahi diogu, gaur egungo gaietan sakonduz eta elkargokideen prestakuntza eskaerei erantzuna emanez.

Gainera, Gizarte Laneko profesionalek emandako prestakuntzari emango zaio lehentasuna, eta ahal bada, hauek elkargokideak izan dezaten saiatuko gara.

Horrela ba, honako hauek dira helburuak:

- Gizarte Langintzaren kolektiboak dituen formazio beharrak asetzea, esperientzia profesionala izanik ezaguerak bideratzeko oinarria eta gida transbertsala.
- Elkargoa eta garatzen dituen jarduerak ezagutzera eman, elkargokide zein ikasleen partaidetza areagotzea lortuz.
- Gizarte Lanarekin zerikusia duten gaien inguruan eta elkargokide, kolegiatu gabekoei eta ikasleei zuzendutako urteko formazio-egutegi bat ezarri.
- Ekonomikoki eskuragarri diren eta iraupen desberdinak dituzten kurtsoak eskaini, behar eta itxaropen desberdinei erantzuna emanez.
- Hainbat erakundeekin kolaborazio ildoak sustatu ekintza formatiboak aurrera ateratzeko.

3. KUDEAKETA

- Elkargoaren irudi korporatiboa hobetze arren lanean jarraitu, bai beste erakundeekin mantentzen ditugun harremanetan bai inguruarekin mantentzen ditugun komunikazioetan, profesionaltasuna eta praktika onak nabarmenduz: web orria, hileroko zirkularra,



agerpen publikoa, prestakuntza, erakunde eta komunikabideekin harremanak.

- Datu-base eguneratua mantendu: administrazio publikoak, enpresak, erakundeak eta arlo sozialeko elkarteak, Elkargoak abiarazten dituen jardueren berri izan dezaten.
- Web orria eduki interesgarriekin osatu, Elkargoa eta elkargokideen arteko edukien transmisio tresna gisa ezartzeko, alde batetik eta bestetik, elkargokide beraien artean, Gizarte Langintzarentzat interesgarria izan daitekeen edozein gaia aurkeztuz edo mahaigaineratuz.
- Administrazio publiko eta enpresetatik jasotako lan-eskaintzak kudeatu.
- Elkargoko Prestakuntza Planaren kudeaketa.

4. KANPO KOORDINAZIOA

- Administrazio Publiko desberdinekin sortu daitezkeeen eta lanbidearekin zerikusia duten ezohiko bilkuretan parte hartzea.
- Administrazioak kudeatzen dituen lan-talde desberdinetan presentzia mantentzea: Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Kontseilua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Haurrak eta nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala, Gizarteratzeko Euskal Kontseilua, Droga mendekotasunen Aholku Kontseilua, Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala eta Familiaren Euskal Kontseilua.
- Gizarte Langintzaren beste bi Elkargoeekin elkarlankidetzan lan egitea, irizpideak bateratzeko eta lanbidearen onurarako izango diren baterako jarduerak antolatzea
- Kontseiluarekin kontaktua mantentzea, Asanbladetan eta beste bilkurretan parte hartuz.

5. LANBIDEA

Gizarte Laneko lanbidearen garapena sustatzeko, honako helburuak ezarri dira:

- Unibertsitate, erakunde publiko eta pribatuekin komunikazio bideak ezarri, prestakuntza ekintzak eta ikerketa bateratuak egitea Gizarte Lanaren onurarako.
- Gizarte Laneko ikasketak egiten ari diren azken urteko ikasleei hitzaldi informatiboa eman, Elkargoa aurkeztuz.
- Gobernu Batzordearekin batera jardungo duten lan-taldeak osatu, aztertuak izan behar duten eta ondoren Elkargoaren esku-hartzea beharko duten hainbat gaietan.
- Gizarte Lanarekin zerikusia duten gaien inguruan ekarpenak egin deitzen diguten foru edo erakunde desberdinetan edo berezko ekimenez, lanbidearentzat interesgarria jotzen delako.
- Biztanleriaren oinarritzko eskubideen aurka doazten edo lanbidearen jardutea urratzen duten gaiak lantzea.

BALANTZE EKONOMIKOA 2016

AKTIBOA	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016
B) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	130.312,72	A) ONDARE GARBIA	
II. Zordun komertzialak eta besteak		A-1) Fondo propioak	
3. Beste zordunak	81,08	V. Aurreko ekitaldien emaitzak	67.925,19
		VII.Ekitaldiko emaitzak	28.060,83
Guztira II.	81,08		
VI. Efektiboa eta beste aktibo likidoak		Guztira A-1)	95.986,02
Guztira VI.	130.231,64		
		B) PASIBO EZ ZIRKULATZAILEA	
		II. Epe luzean zorrak	
		Guztira II.	30.788,38
		C) PASIBO ZIRKULATZAILEA	
		IV. Hartzekodun komertzialak eta besteak	
		Guztira IV.	3.538,32
GUZTIRA AKTIBOA	130.312,72	GUZTIRA PASIBOA	130.312,72

AURREKONTUA 2017

1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	108.770,75
7000001 LIBURU SALMENTAK	321,06
7050001 UDALETXEENTZAKO EGINDAKO LANAK	1.875,14
7050002 ELKARGOKIDE KUOTAK	84.212,43
7050003 BESTELAKO DIRU-SARRERAK	456,18
7050004 BESTELAKO KURTZOENGATIK DIRU-SARRERAK	17.688,61
7050006 BITARTEKARITZA KURTZOEN DIRU-SARRERAK	4.008,12
7050008 KONTSEILU OROKORRERO ASANBLADAK DIRU-SARRERAK	209,21
4. Zuzkidurak	-3.997,83
6000001 LIBURU EROSKETAK	-1.526,06
6000002 KONTSEILU OROKORREKO ALDIZKARIAREN HARPIDETZA	-2.116,88
6000003 LIBURUTEGIRAKO LIBURUEN EROSKETA	-300,00
6000005 BESTE ALDIZKARIEN HARPIDETZA	-54,89
6. Langileen gastuak	-45.216,52
6400000 SOLDATAK ETA LANSARIAK	-33.917,04
6420000 GIZARTE SEGURANTZA ENPRESAREN KONTURA	-11.226,94
6430000 EPE LUZEKO EKARPEN ZEHAZTUTAKO SISTEMAREN ORDAINKETA	-72,54
7. Beste ustiapen-gastuak	-36.356,02
6210001 RENTING FOTOKOPIAGAILUA	-1.044,12 €
6230001 AHOLKULARITZA	-2.468,40 €
6230002 ABOKATUAK	-1.000,00 €
6230003 HIZLARI KOLABORATZAILEAK	-6.000,00 €
6230004 BITARTEKARITZA KURTZO SOKO GASTUAK	-6.770,05 €
6230005 GIZARTE LANGINTZAREN MUNDUKO EGUNeko GASTUAK	-1.000,00 €
6230007 KONTSEILU OROKORREKO ASANBLADAKO GASTUAK	-300,00 €
6230008 GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN PARTAIDETZAKO GASTUAK JARDUNALDIETAN	-600,00 €
6250000 ASEGURU-PRIMAK	-468,60 €
6260000 BANKETXETAKO ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK	-214,15 €
6280001 ARGI-HORNIKETA	-863,99 €
6280002 ZABORRAK UDALA	-333,45 €
6290001 OSTATUTA ETA JOAN-ETORRIAK	-4.000,00 €
6290003 POSTA	-303,64 €
6290004 BESTE GASTUAK	-450,00 €
6290005 GARBIKETA	-87,33 €
6290006 TELEFONOA	-598,06 €
6290007 FOTOKOPIAK	-286,23 €
6290008 BULEGOKO MATERIALA	-2.000,00 €
6290009 KOMUNITATEKO GASTUAK	-768,00 €
6290010 KURTZOAK	-6.300,00 €
6310001 LOKALEKO OHZ	-500,00 €
A) USTIAPEN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)	23.200,38
13. Finantza diru-sarrera	350,00
b) Beste finantza diru-sarrera	350,00
7690000 Beste finantza diru-sarrera	350,00
14. Finantza gastuak	-290,00
6623000 kredito erakundeekin zorren interesak	-290,00
B) FINANTZA EMAITZA (13+14+15+16+17+18)	60,00
C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A+B)	23.260,38
D) EKITALDIKO EMAITZA (C+19)	23.260,38